

Herri Aldizkaria

Otamotz

1998ko martxoa 35. alea

Concceta
Probanzari
elkarrizke-
ta

Hot Dogs
taldeak
diska kale-
ratuko du

Urolako
presiden-
tea kargua
uztera doa



Ahoz aho belaunez belaun
Urretxu-Zumarragan



ESKOLA KIROLAREN GEHIGARRIA



1972. urteko argazki honetan, Zumardi elkarteak izan zuen lehenengoetariko gida batzordea ikus daiteke.

Zutik: Armando Arizmendiarieta, Ramon Huarte eta Antonio Elgarresta

Eserita: Luis Kerejeta, Eugenio Intxausti, Pedro Elgarresta, Eladio Torres eta Joseba Zumarraga.

Behean: Daniel Sanchez eta Esteban Barrena.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943725775 **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

☎ 72 42 55
Legazpi, 14
ZUMARRAGA

ecu

☎ 43 19 72
Getaria, 18
DONOSTIA

iker

SUKALDE ERAKUSKETA FAGOR

Udala Enparantza, z/g
Tel.: 943 / 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5
Tel.: 943 / 72 50 75
20700 URRETXU

Urretxuko I.go Ingurugiro

Astearen Balorazioa

Martxoko lehen astean burutu zen Ingurugiro Aste honen inguruan **lehiaketa** bat antolatu genuen, Zabor orduaren lehiaketa. Ikasleen artean harrera paregabea izan zuen honek, 150 lan jaso bai genuen. Lanak zuten kalitatea onaren ondorioz, epaileek, arazoak izan zituzten 4 sariak eta 10 aipamenak aukeratzeko. Martxoaren 2an eman zitzaion hasiera Ingurugiro Asteari Urretxuko udaletxeko areto nagusian, bertan, 40 lagun elkartu ginen. Aipatzekoa da **partehartzaileen artean egondako kolaborazioa**, bati baino gehiagori eginiko galderen mailak, arreta deitu baitziren.

Helduen eskolako ikasleentzat hainbat ekintza antolatu genituen. Jarduera hauetara zentruetara jotzen duten ikasleen gehiengo gerturatu zen, 35 pertsona inguru eta 2 ordutan prestaturiko ekintza ezberdinak garatu ziren, ikasleen partehartzea eta galdera kopurua, interesa azken finean, nabaria izan zen.

Asteazkenean, **hitzaldi batzuk** aurrera eramateko herritarrekin elkartu ginen Urretxuko Kultur Etxeko aretoan. Ikuspegi lokal batetik eta Urretxuko Osasun Diagnostikoan markaturiko gaiak kontuan izanik, hitzaldietan hiru gai sakondu genituen: **Ura, airea eta hondakinak**. Gipuzkoako Ur kontsorzioak Ura, Foru Aldundiak Atmosfera eta Sasietako Mankomunitateak Honda-kinak gaiak aurkeztu zituzten. Hitzaldi hauetan 20bat ikusle izan ziren.

Ostegunean, Ingurugiroarekiko interesa zuten **Mairi elkarteko 40 bat emakumez osatutako taldea** bildu zen. Egun honetako jarduerak 2 ordu iraun zuen eta planifikaturiko guztia eraman zen aurrera. Partaideei orohar, oso atsegina eta interesgarria iruditu zitzaizkien egun honetako jarduna.

Ostiralean **"Ekologia eta gizarte inguru-nea"** titulapean bestalde, bost hizlari ekologiararen ikuspegi soziala agertu nahi izan zuten mahai inguru batean. Hizlariak, herriko ikas-tetxeetako 2 ordezkari, CEIDAKo teknikari bat eta bi talde ekologistako (Berdeak eta Eguzki) ordezkari bana izan ziren. Egun berean, **"Zabor Orduaren Lehiaketa"**ko sari banaketa egin zen.

Larunbatean, herriko haur eta gazte-entza-



Esther Larrañaga, Peio Gonzalez eta Gorka Sedano

ko ekintzak antolatu genituen, goizean, 60 haur eta gazte baino gehiagoren partehartzea izan genuelarik. Urretxun zehar ibilbide ekologikoa burutu ondoren, beste zenbait ekintza garatzean, **haurrek konpromezu gutun erraldoi bat idatzi zuten**. Arratsaldean, berriz, 140 bat haur elkartu ziren bi ordutan, prestatuta zeuden jolasak aurrera eramateko.

Aipagarria da ekintza guztiak izandako **eragin soziala** eta era berean, azken egun honetan haurrekin batera aritu ziren begiraleen lan paregabea ere eskertzeko modukoa da.

Bestalde, aste osoan Aldaketa erakusgelan, Sasieta Mankomunitateak hondakinen kudeaketan egiten duen lanaren triptiko eta azalpenak ikus ahal izan dira erakusketa batean. Denera, **300 bat lagunek bisitatu dute erakusketa hau**.

Urretxuko I.go Ingurugiro Astearen **balorazioa bukatzeko**, hasiera batean programa honetan planeaturiko helburuak bete direla esan daiteke. Honez gain, esan behar da 6 hilabeteko prestakuntza lan gogorra suposatutako duen aste honekin bukatu ondoren, ekintza guztiak antolatu ditugun teknikari eta hezitzaile taldea, oso gustura aurkitzen garela lorturiko emaitzekin.

Gure ustez, Ingurugiroaren alde egiten diren jarduerak orok, ez dira nahikoak, egiteak geratzen den guztia ikusita. Horregatik, I.go Ingurugiro Astearekin hasiera eman diogun lanari, **jarraipena emateko nahia dugu**.

Gorka Sedano

Urretxuko udaleko ingurugiro teknikaria

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, ganibet,... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO

Levi's

LIBERTO

Pepe Jeans
LONDON

DIESEL
JEANS AND WORKWEAR

SALTOKIA DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA



MADARIAGA

Gestoria-Inmobiliaria-asegurak

Labeaga, 27 eta faxa: 72 55 29
URRETXU



ALMACENES SANTA BARBARA

Eraikuntzarako era guztietako materialak.
Gres eta azulejotako markarik onenak.

Mugitegi Pol. B, 2 eta faxa 72 55 16
URRETXU

Larraioltz

Barne diseinua

Altzariak eta dekorazio gaiak
Dekorazio proiektuak
Estilodun opariak
Eskaparatismoa

Bidezar, 9 eta 72 12 56
ZUMARRAGA

“Nire lana kanpoan ere baloratzen dela ikusteko balio izan dit sari honek”

Concceta Probanza

Arte Ederrak (grabatuen espezialitatea) ikasitakoa da Concceta. 1991. urtetik gaur egunera arte dozena bat erakusketa baino gehiago eskaini ditu hainbat herri eta hiritan. Azkena, hilabete honetan Buhame tabernan. Pintatzeaz gain bestelako margolanak ere egiten dituen urretxuar honek, 28 urterekin lortu du orainarteko saririk garrantzitsuenak. Euskal Herriko Komiki lehiaketa ospetsuenean, alegia, Portugaleteko Udaleko XII. Komiki lehiaketan, lehen saria eskuratu du “Poxpolu-kaxa” izeneko lanarekin. Saria jasotzen duen lehen emakumea da gainera.

Zenbat gauza sar daitezke “Poxpolu-kaxa” batean?

Hasieran ez dago jakiterik zeri buruzko komikia den. Amona batek, amets gaizto bat izaten du. Aurrerago, amona horren biloba ikusten da, hau Madrilera doa, “Reina Sofia” museoa ikustera. Amonak, hau jakitean, poxpolu kaxa bat ematen dio. Ondorengo eszenetan bilobak, amonak Gernikako bonbardeaketan pasatutako une txarrak gogoratzen ditu. Handik aurrera, komikiko marrazkiek, Picassoren koadroaren itxura hartzen dute. Istoria aurrera doan heinean, amonak oparitutako kaxa horretan poxpolu bat dagoela konturatzen da biloba eta Gernika koadroa ikustean, orduan konturatzen da koadro horretan bere amonaren eta sendikoen sufrimendua ageri dela. Azkenean, pox-

polu horrekin erre egiten du koadroa.

Nola sortu zitzazun ideia?

Birmingham argitaletxeak egin behar duen liburu baterako ilustrazioak egiten ari nintzela bururatu zitzaidan ideia. Liburuaren izenburua, “Duras palabras para Gernika” zen eta hortik hasi zen dena.



Zenbat denbora behar izan duzu komiki hau egiten?

Zehazki ez dakit, ez bainaiz aritu buru-

belarri lan hau egiten. Hirubat hilabete edo. Aurkeztu, azkeneko momentuan aurkeztu nuen.

Jose Luis Padron, zure senarrak ere lagundu dizu ezta?

Gidoia biok egin dugu eta testua bai, testua jartzearena bere lana izan da. Istoria bioi bururatu



zitzai-
gun. Ondoren, eszenak bata bestearen atzetik jartzen joan nintzen eta Jose Luisek, testua eszenei egokitu zien.

Portugaleteko



Komiki lehiaketa irabaztea, hau da, mota honetako lehiaketarik sonatuena irabaztea garrantzitsua izango da zuretzat.

Bai hala da. Aurten gainera Euskadikoak ez diren partehartzaileen kopurua igo egin da. Orotara 149 lan aurkeztu dira.

Gainera, euskaraz egindako lana saritu da eta hori ere ez da normalean gertatzen. Diru alde-tik ere ondo dago, nik, 140.000 pezetako saria jaso baitut. Dena den, ez naiz ni bakarrik saritua izan, beste

saritu batzuk ere izan dira.

Aurrerantzean zer egiteko asmoa duzu?

Orain arte, Birmingham argitaletxearekin ilustrazio lan batzuk egin ditut, Erein argitaletxearekin ere Pako Aristrentzat aritu naiz lanean. Horretaz gain, Jose Luisek, poema liburu bat kaleratuko du irailean Ereinekin eta lehen orria eta barruko marrazkiak nik egingo ditut.

Artea bizibidea izan al daiteke?

Horretangabiltza. Jose Luisek eta biok argi eta garbi dugu hau, baina bide zaila da. Hala ere, lan egiteari uzten ez diogun bitartean nahiz eta gure lana kanpora ez irten, aurrera egingo dugula iruditzen zait. Egun batean irtengo da kanpora gure lana.

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN V. GEHIGARRIA



Atletismoa hartu dugu hizpide hil honetan, zuetako askok proktikatzen duzue-lako eta hainbat proba burutu direlako martxoan zehar. Beti bezala ordea bes-telako kirolen emaitza eta sailkapenak ere baditugu zuei eskaintzeko prest. Elkarrizketa berriz, eskubaloian aritzen den Iker Soraluzeri egin diogu. 21 urte ditu eta zuek guztiok bezala, eskolarteko kirolean ekin zion jokuari. Orain lais-ter Aste Santuetako oporrak datozkizuela aprobetxatuz kirola egiten jarraitze-ko sekulako parada daukazue. Hala ere, ez ahaztu kirola neurrian egin behar dela, gorputza errekuiperatzea ere oso garrantzitsua delako.

TXIKIMOTZ egiten dugun guztion partetik Aste Santuko opor on-onak igaro eta bueltakoan elkarrekin izango garelakoan, agur bero bat kirolzaleok.

TXIKIMOTZ

- 1.-Imanol Mordillo (L. Ama) 27m.
- 2.-Imanol Perez (Olazabal) 18,20m.
- 3.-Antton Salvador (Haztegi B) 15,25m.

- 1.-Ander Martinez (Haztegi B) 4,19m.
- 2.-Mikel Arriaran (L. Ama) 4,12m.
- 3.-Jon Zeberio (Olazabal) 3,74m.

- 1.-L. A. Rodriguez (Olazabal) 11,5seg.
- 2.-Alain Narbona (Haztegi B) 11,6seg.
- 3.-Iñaki Pascual (La Salle) 12,6seg.

- 1.-Angel Estevez (Olazabal) 7,88m.
- 2.-Aitor Telleria (Haztegi B) 6,70m.
- 3.-Joseba Imaz (L. Ama) 6,52m.

- 1.-Raul Ramos (Olazabal) 16,1seg.
- 2.-Jonatan Alonso (Iparra.B) 16,2seg.
- 3.-J.M. Carbajo (Iparra A.) 17,1seg.

- 1.-J.M. San Millan (Haztegi B) 15,4 seg.
- 2.-Eduardo Roman (Olazabal) 15,7 seg.
- 3.-Jon Larreina (L. Ama) 17,1 seg.

- 1.-Dominguez-Ramos (Olazabal) 45,5seg.
Perez-Aristi
- 2.-Sotil-Martinez (Haztegi B) 45,7seg.
Ortiz-San Millan
- 3.-Pascual-Del Blanco (La Salle) 49,1seg.
Gil-Orobengoa

- 1.-Imanol Perez (Olazabal) 21 seg
- 2.-Unai Murua (Iparragirre A) 22,5seg
- 3.-Ibon Sotil (Haztegi B) 22,6seg


- 1.-Xabier Ortiz (Haztegi B) 1,30 m.
- 2.-Jon Aristi (Olazabal) 1,30 m.
- 3.-Asier Orobengoa (La Salle) 1,25 m.

- 1.-Joseba Iglesias (L. Ama) 3,15
- 2.-Imanol Mordillo (L.Ama) 3,15
- 3.-Roberto (Olazabal) 3,27

- L.Ama A - La Salle A 4-0
Gainzuri A - D. Agirre A 2-2
L. Ama B - La Salle B 2-0
Gainzuri B - Zelai Aristi 2-1
La Salle C - D. Agirre B 1-3
La Salle D - Gainzuri C 0-3

- Gainzuri A - L. Ama A 44-30
L. Ama D - L. Ama B 69-3
La Salle C - Zelai Aristi 18-30
La Salle B - La Salle A 22-10





KIROL EMAITZAK (98-3-28)

INFANTIL MAILA

ATLETISMOA NESKAK

1000m.

- 1.-Uxue Fernandez (L. Ama B) 3,47
- 2.-Rakel Mendiola (La Salle C) 4,10

LUZERA JAUZIA

- 1.Ainhua Urretabizkaia (L.Ama) 4,06m.
- 2.-Maria Clavero (Iparragirre) 3,78m.
- 3.-Rakel Mendiola (La Salle C) 3,75m.

150 m

- 1.-Irati Elgarresta (La Salle C) 23seg.
- 2.-Sara Movellan (Iparragirre) 24,4seg.
- 3.-Leire Isasa (Haztegi) 24,4seg.

80m

- 1.-Eduarne Gonzalez (Haztegi) 10seg.
- 2.-Irati Elgarresta (La Salle C) 11,1 seg.
- 3.-Maria Plazaola (L. Ama B) 12,4 seg.

80m HESIAK 1GO SERIEA

- 1.-Estibaliz Rodriguez (Olazabal) 15,9 seg.
- 2.-Ana B. Alfonso (La Salle C) 16,1seg.
- 3.-Elena Lozano (La Salle A) 16,9seg.

80m HESIAK 2. SERIEA

- 1.-Eduarne Gonzalez (Haztegi) 13,6seg
- 2.-Maite Perea (Haztegi) 14,9seg.
- 3.-Jone Tauchke (L. Ama B) 16.7seg.

4X80

- 1.-Goñi-Perea (Haztegi) 47,5seg.
Gonzalez-Isasa
- 2.-Castuera-Perez (Iparragirre) 49,3seg
Clavera-Rodriguez
- 3.-Diez-Elgarresta (La Salle C) 50,1seg.
Alfonso-Mendiola

PISUA (3KG)

- 1.-Sandra Garcia (Olazabal) 7,12m.
- 2.-Tania Bartolome (La Salle C) 6,05m.
- 3.-Arantzazu Arrospide (L.Ama A) 5,64m.

DISKOA (800 Gr)

- 1.-Begoña Rodriguez (Olazabal) 16,72m.
- 2.-Loitzune Rodriguez (Haztegi) 16,67m.
- 3.-Ariadna Aristegi (L.Ama) 13,35m.

SAILKAPENA

MUTILAK

- | | |
|--------------|-----------|
| 1.-Olazabal | 169 puntu |
| 2.-Haztegi B | 164 puntu |
| 3.-L. Ama | 151 puntu |

NESKAK

- | | |
|---------------|-----------|
| 1.-Haztegi | 158 puntu |
| 2.-Olazabal | 155 puntu |
| 3.-La Salle C | 155 puntu |

Iker Sorraluze:

"Urdangarin Boom a eskubaloientzat onuragarria izango dela uste dut"



-Noiz hasi zinen eskubaloian jokatzeko?

Ikastolan 8. mailan hasi nintzen jokatzeko, baina lehendik 5. mailan jokatu nuen pixka bat eta gustatu egin zitzaidanez, 8. mailan jarrai-tzea pentsatu nuen eta ondoren Urola eskubaloia taldean jarraitu nuen.

-Nolatan eskubaloia eta ez guztiak bezala futbola?

Bueno nere kasua nahiko kurioso da, baina nik 6. mailan saskibaloian jokatu nuen, 7. mailan futboleko eta 8. mailan eskubaloian, pixka bat denetik probatze-ko. Eta gehiena eskubaloia gustatu zitzaidanez aurrera jarraitu nuen.

-Zertan moldatzen zara hobeto erasoan ala defentsan?

Erasoan (Zalantzarik gabe). Defentsan ez dut jokatzeko.

-Gol asko sartzen al dituzu?

Bai, gol asko sartzen ditut, baina penaltiak botatzen ditudalako, eta eskubaloian penaltiak botatzeak gol asko sartzea suposatzen du. Normalean partiduko 5-6 gol sartzen ditut. Aurten taldeko goleatzaile nagusi ni naiz, baina Gorka Mendia bi hilabetez lesionaturik egon delako bestela bera izaten da taldeko goleatzaile onena.


-Hemen inguruan eskubaloian talde ugari dago, horrek zer esan nahi du maila altua dagoela?

Ba ez dakit normalean kostaldean maila altuagoa dagoela esaten da, baina hemen ere nahiko maila majua dau-

kagula uste dut, eta gainera gertutasun honek elkarren artean "pikea" egotea ekar-tzen du.

-Nolako taldea daukazue aurten?

Nik uste dut nahiko talde konpentsatua daukagu-la.



Egun txarrak ere izaten ditugu noizean behin, baina bestela taldea nahiko ona da.

-Mailaz igotzeko esperantzarik ba al daukazue?

Mailaz igotzea oso zaila da, igoera fasea jokatzeko sailkatu gara baina igoera lortzea oso zaila ikusten degu. Orain igoera fasean Bizkaia eta Arabako taldeen aurka jokatzeko degu, gure taldean lehen tokia eskuratu duten Zarautzarekin batera. Gure taldean jokatu behar

duten Deustutarrak ez dute oraindik partidua bat bera ere galdu, beraz nahiko fase gogorra izango dela uste dugu. Gainera mailaz igoz gero desberdintasun handia nabaritzen da batez ere defentsan.

-Urdangarin "boom" a eskubaloian nola ikusten duzu, eta Urretxu-Zumarragan izan al du bere eraginik?

Orain ematen du berak bakarrik jokatzeko duela, guk pentsatzen degu eskubaloian ondo etorriko zaiola, ez da normala infanta batekin ezkon-tzeagatik izatea, baina egia esate-ko eskubaloiak behar du horrela-ko zerbitu, jendeak ez baitio kasu gehiegirik egiten kirol honi eta ea horrelako zer-baitekin futbolari itzal pixka bat egiten diogun. Gure herriei dagokionez, aurten inoiz baino kadete gehiago hasi da jokatzeko eta gure partidua ikustera ere jende ugari hurbiltzen da.

-Amaitzeko idolorik ba al daukazu eskubaloian munda?

Bartzelona eskubaloian taldeko Enriq Masip, beti irudituko zait erabateko jokalaria, defentsan oso ona eta erasoan nahiz eta besteen ondoan nahiko txikia eman, kasta handikoa da. Txarrena Bartzelonakoa dela eta ni Bidasoakoa naizela.

HERRIA: URRETXU

ADINA: 21 URTE

TALDEA: UROLA

GARAIPENAK: JUBENIL MAILAN GIPUZKOAKO SELEK-ZIOAREKIN EUSKADIKO TXAPELKETA IRABAZI ZUEN..

AURTEN UROLA ESKUBALOI TALDEAREKIN BIGARREN MAILA-RAKO IGOERA FASEA JOKATZE-RAKO SAILKATU DA.

JUBENIL MAILAN JOKATZEN ZUENEAN BERE MAILAKO GOLEATZAILE NAGUSIA IZENDATU ZUTEN.


GURE HERRIETAN ESKUBALOIAREN ETORKIZUNA NAHIKO ONA DELA DIO, GERO ETA GAZTE GEHIAGO HASTEN BAIT DIRA JOKATZEN.

Oparirik jaso/ egin al zenuen aitaren egunean?



Josu Aldasoro

Ez, ezta okurritu ere, ez dugu ohiturarik egun hone-tan oparirik egiteko.



Joxe M^a Kortaberrria

Ez didate oparirik egiten. Ea hurrengo urterako animatzen diren eta zerbait oparitzen didaten.



Jose Luis Lopez

Egunerokotasunean sinesten dut nik, eta ez egun bateko oparietan. Ez zidaten oparirik egin, ezta nahi ere.



Anastasia Zabaleta

Bai, gure etxean ohiturarik badute. Amaren eguna ere ospatzen dugu eta opariren bat espero dut.



M^a Jose Apaolaza

Bai. Seme-alabak dira aitari opari txikiren bat egiten diotenak eta baita niri ere amaren egunean. Lehen egin eta orain erosi egiten dute.



Amaia Garziandia

Ez dugu ospatzen ezta oparirik egiten ere. Ikastolan ibiltzen ginenean bai, orduan eskulanean bat oparitzen genion.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

LIBURUEN DENDA

GANBARA

Labeaga, 52 ☎ eta Faxa: 72 50 45
20700 URRETXU



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52




Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61



Antigua Abesbatzak lehiaketan, herritarra garaile

Eresargi Txiki eta Santa Zezilia koroak izan ziren Zumarragan egindako II. Abesbatzen lehiaketako garaileak. Santa Zezilia abesbatzako partaidea da hain zuzen Zumarragan jaio eta Urretxun bizi izan den **Xanti Arrizabalaga**. Medikuntza ikasketak amaitzeko asmoz jo zuen Xantik Donostiara eta behin han zela, medikuak diren lagun batzuk animatuta Santa Zezilia abesbatzan kantatzeari ekin zion. Bost urte daromatza Xantik abesbatza honetan eta nahiz eta betidanik izan duen gustukoa kantatzea, norbaitek animatu ez balu ez zatekeela abesten hasiko onartu digu. Herrian kantatzeak, normalean baino urduriago jarri zuen Xanti, ikusleen artean ezagun ugari baitzituen.



Martxoaren 8an sekulako festa Gaztelelekun.

Gaztelekun, 25bat neskek bazkari eder batekin ospatu zuten martxoaren 8a. Laugarren urtea da bazkari hau egiten dutena eta aurrerantzean ere ospatzen jarraituko dutela diote. Arratsaldean berriz, "La Xeta Paxote" izeneko nesken musika taldeak kontzertua eskaini zuen. Umore onean eta batek baino gehiagok, berandu amaitu omen zuen eguna.

Herri Batasunak, gasaren fakturretan iruzurra dagoela dio


Zumarragako Herri Batasunak prentsaurrekoa eskaini zuen Amalur Elkartearen Natur Gaseko fakturretan dagoen ustezko ilegal-tasuna salatu eta jendea informatzeko. Joxean Alustiza eta Mikel Elgarrestak esandakoaren arabera, iruzurra, instalakuntza ikusketara eta alta eskubidea kobratzerako orduan dago. Natur Gasek berriz, eskutitz bat bidali du etxeetara, tasa hori legezkora dela esanez eta dirua itzuli beharreko kasuetan, bai salaketa jarri dutenei eta baita jarri ez dutenei ere itzuliko zaiela argituz. Alustizak ordea nahaste handia dagoela dio, izan ere, Jabier Retegi industria Sailburuak, eskubide hoiei dagoen tasa, orain jartzera doazela esan omen du eta orainartean kobratu dena baino gutxiago bada, dirua, salaketa jarritakoei itzuliko zaiela adierazi. Herri Batasunak ordea, kontsumitzaileei guztiei, tasa osoa eta dagokion BEZa itzuli behar zaiela pentsatzen du, tasa legez kanpokoa delako. Salaketa jartzeko honako hau da jarraitu beharreko bidea: Denuntzia orria bete (Amalurren banatzen dena), kopia bat egin eta zigilua jarri, sinatu eta kopia bat Industria Delegaritzan entregatu. Behin hau egin ondoren, zigilatutako orria, kontratuaren kopia eta gasaren lehen faktura Donostiako Urkoa-Eka kontsumo bulegoan utzi. Bulego hau izango da epaitegira joan beharra suertatu ezkerro, gai hau bideratuko duena. Herri Batasunak, Amalur Elkarteak ateak zabalik izango ditu apirilko lehen astean itzultzeko 7etatik 8etara gai honi buruzko informazio gehiago emateko. Dena den norberak bere kasa informatu nahi badu, Urretxuko Kontsumitzaileen bulegoan ere galdetu daitekeela argitu du Herri Batasunak.



MAIRI Kultur Elkartek Lunch bat eskainiz eta "Un mes en el lago" pelikularen bidez, ospatu zuen Martxoaren 8a, emakume langilearen eguna hain zuzen ere. 130 emakumek osatzen dute MAIRI, inongo interes ekonomikok bultzatu gabe. Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen


dituzte, esaterako, argazkian ikus daitekeen bezala, Bizkaian zehar eginiko bira. Gernikako Arbola eta Guggenheim museoa ikusi zituzten. Apirilera, astelehenetan kafe tertuliak, astearteetan Salsa dantza ikastaroa, asteazkenetan "Mache" paperaren ikastaroa eta asteazkenean apirilaren 22an, "Multipropietateari" buruzko hitzaldia antolatu dituzte.

Martxoaren 13an ezarri zen **Iparragirrerren eskultura** Hormigones Urretxu lantokia eta Aparizio Auzoaren tartean, Bittor Hernandezek eginiko Iparragirrerren eskultura. Eskultura, "**Urretxu Iparragirrerren jaioterria**" dioen panelarekin batera doa. Bi hilabete eman ditu Hernandez urretxuarrek eskultura egiten. Poliesterrez egina dago eta neurriak, 3m'70 x 2m'80 dira. 80 kiloko pisua du eta berez handia bada ere, gauean ikusi ahal izateko, argi izpi batek argiztatu egiten du.



Bittor Hernandez

Martxoaren 25ean burutu zuen Zumarragako Udalak **Zelai Aristi zinema zaharreko akzioen erosketa** 85 milioien truke. Behin lokala erosita, Arbulu alkateak eta Sagarna kulturako zinegotziak esan bezala, lanean hasteko garaia da. Hurrengo pausua, zinearen erabateko proiektua osoko bilkuran onartzea izango da eta behin hau egin ondoren, eraikuntza lanak lehiaketa publikora aurkeztu beharko dira. Zelai Aristi zinema zaharra guztiz eraberrituko da erabilera anitzetarako antzokian bihurtuz. Eskenatokiak 138 metro karratu izango ditu eta lokalak, 338 eserleku. Sagarna kulturako zinegotziak esandakoaren arabera, finantziarioari aurre egiteko ez dago arazorik. Aurrekontua orotara, 348 milioitakoa da, hauetatik 273 eraikuntza lanei aurre egiteko erabiliko dira eta gainontzeko 76ak, zine berriaren hornikuntza tresnak erosteko izango dira. Lanak datorren urteko uztaila eta abendua bitartean amaitzea espero dira.



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700
URRETXU

725682
722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
72 20 00 faxa: 72 24 00



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuk, dordokak

Urdaneta, 3

72 61 13

ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura

Labeaga, 31
20700 URRETXU

72 27 80

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



ARTYRO

Ipeñarrieta, 4

72 14 20

URRETXU

Kizkitza Ugarteburu, Iparragirreraren aztarnen bila

26 urteko urretxuar honek, kazetaritzako ikasketak burutuak dituenak, 5 hilabete eman ditu Iparragirreraren inguruan dagon informazioa biltzen. Lan hau apirilean amaituko duenez, eta apirilaren 6an Iparragirre hil zela 117 urte beteko direnez, orain arte eginiko aurkikuntzen berri eta aurrera begira, Iparragirre dela eta egin nahi diren proiektuen berri eman digu.



Zertan aritu zara zehazki?

Udalak Iparragirreri buruzko txosten bat aurkeztu nahi du Foru Aldundian. Hori dela eta bi zatitan banatu dut egitekoa. Alde batetik bere biografia eta bibliografia. Lehen zati honetan, herrian, Iparragirreri buruz dauden oroigarriei buruzko historia biltzen ere saiatu naiz eta baita artxiboan, Iparragirreri buruz dauden eskutitz, argazki eta beste zertifikatu batzuk klasifikatzen ere. Bigarren zatian, aurreko guztiarekin zer egin daitekeen asmatu beharra daukat. Proiektuak aurkeztu beharra ditut.

Eta zer egiteko asmoa dago zuk eginiko ikerketekin?

Horretan ari naiz. Museo bat egiteko ez dugu behar adina material. Agian, bildutako dokumentu guztiekin erakusketak bat egingo dugu. Honetarako, lokal egoki bat beharko genuke, Alde Zaharrean dagoen lokalen bat ona litzateke proiektu honetarako. Gaztetxoentzat berriz jokuz betetako maleta didaktiko bat egin daiteke. Bestalde, audiobisual edo diaporama bat egiteko ideia ere hor dago.

Iparragirreri ahotsa jarriko genioke eta honek, Urretxuren bilakaera kontatuko luke. Hau, Kultur Etxeko ikus-entzunezkoen gelan jarriko genuke. Momentuz, diaporama egitearena garbiago ikusten da erakusketarena baino. Beste proiektu bat, Alde Zaharra indartzea da. Honetarako triptiko batzuk kaleratzeko asmoa dago Alde Zaharra azalduz eta bertan, Iparragirreri buruzko oroigarriak non diren ere azaltzeko asmoa dago.

Zeintzuk izan dira aurkikuntza nagusiak?

Adibidez, Iparragirreraren gurasoen gozotegi bat zutela, oso gaztea zela amari eskolara zihoala esan eta Karlistekin gerrara joan zela, European erbestean zegoela, artista batekin Fernando Jose izeneko seme bat izan zuela, artzai moduan desastre hutsa zela....Azken hau, Iparragirre hil eta 39 urtetara abeslariaren andreak kazetari bati esandakoa da. Eguna, kantuan ematen omen zuen eta bitartean ardiak, galduta. Montevideon, Gernikako Arbola izeneko taberna bat ere izan zuten, Iparragirrek batere zaintzen ez

zuen. Lagunekin batera edan egiten omen zuen eta gero, lagunak zirenez, ez zien kobratzen. Azkenean, taberna itxi beharra izan zuten.

Aldaba aldizkarian, Gernikako herri aldizkarian, Gernikako Arbola kanta ez dela Iparragirrerena ageri da. Joxe Migel Arrietaren letra eta J.M. Altunaren musika omen da. Zer uste duzue zuk?

1960 eta 70. hamarkadako artikulak denetik diote. Zalantza ugari daude. Letrak egiten oso abila ere ez zela irakurri dut nonbait baina hala ere, nire ustez, ez diogu honi horrenbesteko garrantziarik eman behar. Gernikako Arbola kanta berea ez bada ere hor daude berak egindako beste hainbat kanta. Iparragirrek zuen grazia nabarmenduko nuke nik guztiazen gainetik.

Nola hil zen Iparragirre?

Orain badakigu ez zela perretxikuak janda hil, bronkoneumoniaz baizik. Gau euritsu batean, Ezkioko Zozabarro bentatik bere amaren baserrira, Gabiriako

Txapartegi baserrira zihoala, ezin izan zuen erreka pasatu, ur gehiegi zekarrelako. Honela, berriz ere bentara bueltatu zen eta bentan familia lo zegoelako, txerrikian geratu zen lo egiten. Han zegoen hezetasunaren ondorioz, eta bidean zeharo busti zelako, bi egunetara, hil egin zen bronkoneumoniak jota.



Zer da Iparragirreraren bizitzatik, gehien harritu zaituenak?

Nola igaro zituen azken urteak Euskal Herrian. Lagun batzuk, Ameriketatik honako bidaia ordaindu zioten. Dirurik gabe eta familia han utzita etorri zen. Lagunei esker, pentsio bat

jaso zuen Aldunditik baina berandu xamar.

Urretxun, Iparragirreraren oroigarri gehiago egon beharko lirakeela uste al duzu?

Badakit zaila dela baina nire ustez bai. Egia esan oroigarri gehiegi ere ez dago. Gernikako Juntetxean, gitarra, erloju kate bat eta Gernikako Arbola partituraren kopia bat daude.



Martxoaren 17tik 29ra bitartean izan da gure bi herriotan "ahoz aho belanez belau" izeneko kanpaina, euskararen jarraipena sustatzeko sentiberatze-kanpaina ibiltaria. Eusko Jaurlaritzako kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailordetza eta Hezkuntza Saila izan dira kanpainaren antolatzaileak eta momenturarte, Euskal Herriko 40 herritaraino iritsi da. Kanpaina hau zela eta bi erakusketa izan dira, bata Urretxuko Labeaga eskolatan eta bestea, Zumarragako Itarte Etxean. Erakusketaren aurkezpenean Eneko Oregi Hezkuntza sailburordea izan zen. Orotara, bi herriko 8 eta 16 urte bitarteko eskolarteko haur guztiek ikusi dute erakusketa. Kanpainari amaiera emateko, bi herrietako haur eta gaztetxoentzat karaokea izan zen martxoaren 27an. Une honetan gainera Urretxu eta Zumarragan, guraso erdaldunei zuzenduriko transmisio kanpaina bat dago martxan. Hiru guraso taldek hartzen dute parte ikastaro honetan euskararen alorrean lehen urratsak emanez.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 72 02 15 - Faxe: 72 52 91
S. Esnaola, 2 ZUMARRAGA



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Hot Dogs, topikoei muzin eginez

Irailean ikusi ahal izango dugu talde honen lehen diska kolean

Iñigok eta Josek gitarra jotzen dute, Ikerrek baxua, Iñakik bateria eta Jonek ahotsa jartzen du. Hauxe da Hot Dogs, Aste Santuan 7 urte beteko dituen Rock & Roll banda. Musika talde gehinetan bezala, aldaketa batzuk izan dira taldean baina gaur egun, talde egonkorra osatzen dute. Honen lekuko dira orain artean grabatu dituzten lau maketak. Dena den, Urretxuko talde honek dioen bezala, "ofizialki" hiru baino ez dituzte grabatu, bata beraiek entzuteko eta beste biak, saltzeko. Orain ordea, erronka berri bati heldu diote lehen diska grabatuz, disketxeak serio hartzen baditu, irailean entzun ahal izango dugun diska.

Nori bururatu zitzaion taldea osatzeko ideia?

Hasieran Iturberen eta nire ideia izan zen. Berehala

Ikerrekin bildu ginen eta ondoren Iñakirekin. Gero urte bat ezer egin gabe egon ginen baina pixkanaka, biltzen hasi eta gaur egunera arte.

Eta orain berriz, lehen diska grabatuko duzue.

Horretan gabilta. Kantak berez grabatuta ditugu baina orain ikusi egin behar disketxeak noizko kaleratzen digun lana. *Muster* edo *No tomorrow* disketxearekin aterako dugu. Hitz egin asko hitz egiten dute baina gero ikusi egin behar.

Zer aurkituko dugu diska horretan?

Diskaren izenburua oraindik ez dugu zehaztu. Zerbait egin eta berehala, hau "deputamadre" zegok esan eta emozionatu egiten gara baina gero beste ideia bat bururatu eta aldatu egiten dugu lehengoak. Auskalo, agian azkenean izenbururik ere ez diogu jarriko. Grabaketa Bilboko Chocablock Records estudioan egin dugu bost egunetan. Kantak, gurea den lerro bat jarraitzen dute baina lerro horren barruan gauza ezberdinak eta era berean interesgarriak entzun daitezke.

Zergatik kantatzen duzue ingelesez eta ez euskaraz?

Azalpen luzea behar du galdera honek. Ea nola adirazten dugun. Esan dezagun gure ustez, euskarak fonetikoki ez



duela belarrira ondo ematen musika mota honi dagokionez. Ingelesak, ahoskatze berezia, abesteko modu bat, estetika modu bat eta musika forma bat dakar berarekin. Euskaraz kantatuz gero aipatutako ahoskatze berezi horrek ez du balio. Gure ustez ingelesa perfektua da Rock & Rolla abesteko.

Zaila izan al da maketatik diskora dagoen pausu hori ematea?

Ez. Grabatzeko orduan maketa edo diskoa grabatzea antzekoa da biak ere, estudioan grabatzen direlako. Lehen maketa grabatzea gogorragoa izan zen, lehen aldiz sartu ginelako estudio batean. Pausoa ematea ez da zaila izan, azken finean, horren atzetik genbiltzelako. Diru kontuei buruz ezin dugu hitz egin oraindik negoziatzen ari garelako.

Zer musika mota egiten duzue?

Rock & Rolla. Edo hori egin nahi dugu behintzat.

Ze musika mota entzuten duzue?

Rock & Rolla. Baina beste-lako taldeak ere bai. Heavy musika... denetik. AC DC, Ramones, Tom Waits, Nick Cave... Bakoitzak bere gustuko kantak ditu baina gero taldean, Rock and Rolla egiten dugu.

Zenbat entseiatzen duzue?

Astean behin. Baina tira, gaur ere badirudi azkenean ez dugula entseiatuko. Egia esan azken denboraldi honetan ez gabiltza oso fin. Gutxi entseiatzen dugu baina ez dugu erre nahi. Egunen batean taldea aurrera doala ikusten badugu serioago hartuko dugu baina momentuz ez.

Zein da zuen ustez musikaren egoera Euskal Herrian?

Denak edo gehienak, egin-dako bidetik doaz. Hau da, talde askok estilo bereko musika egiten dute. Hori, hemen beti ezberdina den zer edo zer egitea asko kostatu delako da. Musikak indibidualagoa izan beharko luke. Bestalde, kontzertuen antolamenduei dagokienez ere asko hitz egin daiteke.

Ez dago musika jotzeko leku aproposik. Frontoiak adibidez, pilotan egiteko dira. Diruarena beste kontu bat da. Zuzenean, duzun guztia ematen saiatzen zara eta gero oso gutxi kobratzen da. Guk adibidez, orainartean, gehien kobratu dugunean 75.000 pezeta kobratu dugu eta gutxien berriz, 5.000 pezeta. Jendeak serioago hartu behar du musika.

Zuen zuzeneko emanaldiak "explosiboak" dira. Zer bilatzen duzue horrekin?



Hot Dogs zuzenean jotzeko bizi da. Tarteka abestiak grabatzen ditugu baina guk benetan gustuko duguna zuzenean jotzea da. Dugun guztia ematen saiatzen gara eta jendeak erantzuten duenean, oso gustura aritzen gara. Haserre irtenen dugu jotzera. Kontzertu

berria nuelako eta zaharra, txarra zelako. Ez pentsa hori beti egiten dugunik. Zuzeneko emanaldietan Jon da benetako "showman" a.

Begiak pintatzearena, zuzeneko montaiarekin batera al doa?

Nik adibidez, (Iñigo) ez ditut sekula pintatu. Hori, (Iker) momentuan gustukoa duzuna egitea da. Mozorrotzeko era bat da eta honekin, taldearen estetika zaintzea bilatzen dugu. Euskal Herrian modan ez dagoen beste gauza bat da hau. Guri, gauza guztiak kontuan hartzen dituzten taldeak gustatzen zaizkigu, musika, zuzeneko emanaldia, estetika...

Non eskaini duzue orainarteko kontzerturik onena? Eta okerreana?

Hainbat aldiz gustura geratu gara gure emankizunekin, adibidez, Moganbo aretoko kontzertua ongi irten zen. Okerrena ekipoa puskatzean. Donostiaraino joan eta gero kontzertu berean ekipoa bi aldiz apurtzea zorte txarra da benetan.

Kanpoan aritutakoan zer nolako harrera izan duzue?

Kanpoan Madrilen soilik aritu gara, ez baitugu joateko ez kotxe ezta furgonetarik ere. Madrilen harrera ona izan genuen. Behin, goizeko 7etan jo genuen juerga ederra egin ondoren.

Musika aldizkarietan oso kritika onak jasotzen dituzue.

Bai, baina gero benetako orduan denek ihes egiten dute. Hau da, oso disketxe gutxi nahi dute gure diska kaleratu.

Egunen batean ikusiko al dugu Hot Dogs, New York-eko Madison Square Gardenen jotzen?

Ni ez nintzateke irtengo, (Iker) beldurra ematen dit eta. Zergatik ez? (Iñigo) Aukera sortuz gero gustura joko nuke. Gure helburua musika alor honetan independentzi pixka bat lortzea da, disketxe eta kontzertuetako antolatzaileek kontuan har gaitzaten.

"Hot Dogs zuzenean jotzeko bizi da, dugun guztia ematen saiatzen gara"

batean, (Iker), baxua puskatu nuen baina beste bat erosi



“Uztera noa, baina datoze- nei laguntzeko prest nago”

Victor Ansorena

Zenbat urte igaro dituzu taldeko zuzendaritzan?

Zuzendaritzan 90/91 denboraldiaz geroztik nabil, beraz, zortzi denboraldi igaro ditut. Lehenengo bi urtetan direktiboa izan nintzen eta ondorengo seieta presidenten.

Zeintzuk dira kargua uzteko arrazoiak?

Ez da nire lanaz nazkatuta nagoelako, futbola izugarri atsegin baitut. Baina hainbeste urte futbolari eskaini ondoren, bizitzako beste arlo batzuei ere garrantzia emateko garaia heldu dela uste dut. Gainera jende berria behar dela uste dut, ideia berriak ekarriko dituen jendea.

Zuzendaritza, egun, hamar pertsonen osatua dago eta oso zaila da horren talde zabala luzaroan mantentzea. Zuzendaritza osoak dimititu dugu eta ea talde berriren bat aurkezten den.

Itxaropenik ba al duzu?

Oraindik ez dakigu inor prestatzen ari den. Ziur gaude norbait aurkeztuko dela, baina hala ez balitz, egoera bideratzeaz bi udalak arduratu beharko lirakeke. Egungo zuzendaritzakook argi dugu, gure aroa bukatu dela.

Zeintzuk izan dira urte hauetako guztietako gauzarik onenak eta okerrenak?

Gauza gehienak positiboak

izan dira. Zazpi talde ditugu poztasun eta tristurak eman dizkigutenak. Mailaz igotzean poza eta jaistean tristura. Jubeniletako ohorezko mailako taldea aurten Euskal Ligara igo eta poz handia emango digula uste dut. Gainera, lehen taldeak ondorengo urteetan hirugarren mailara igotzeko aukera izatea espero dugu.

Nola ikusten duzu egungo egoera?

Egun dagoen arazo larriena, gu bezalako taldeentzat, Canal Satellite Digitalarena da. Izan ere, Errealaren partiduak telebistaz gurearen ordu berean eskaintzen dituzte. Behar bada, partiduaren eguna aldatzea pentsatu

Victor Ansorenak, Urola futbol taldeko presidenteak, kargua uztea erabaki du. Otamotzek berarekin hitz egin du erabakia hartzera bultzatu duten arrazoiez eta urte hauetako bizipenez.

dugu. Baina Urolako afizioa oso leiala da eta beti 500 bazkide inguru izan ditugu, baita egun ere. Aukera hau aprobe txatu nahi nuke, bazkideei eta Zumarraga-Urretxuko merkatariei eskerrak emateko. Beti laguntzeko prest izan dira eta beraiei esker jo dugu aurrera.

Zer mezu bidali nahi duzu lagun talde bat zuzendaritza hartzera animatzeko?

Futbola atsegin badute, lan hau oso gustura egingo dutela ziur nago. Lagun talde batek ardura hartzen badu, lana askoz arinagoa egingo zaio. Urolak zuzendaritza ona merezi du eta ziur nago poz handiak izango dituztela. Egund, Urolan dauden guztiek, oso harrera ona egingo diete eta gu, nahi duten guztietan, eurekin edukiko gaituzte.

Nor izan da Urolako jokalaririk onena urte hauetan?

Ezin da izen bat esan. Jokalari on asko izan dira: Mitxel, De Luz, Bixio Aranburu, Mendiluze, Esnal...



Esaiguzu zer bait jokalaria hauetaz hitz gutxitan.

✓ **Musti Mujika:** Jokalari ona, pertsona bezala bakarra.

✓ **Mitxel:** Jokalari oso ona, goleatzailea.

✓ **De Luz:** Indarra eta kemena.

✓ **Esna!** Bihotz handikoa.

✓ **Alberto Alejandro:** Jokalari handia izatera heldu daiteke.

Zer nolako harremana daukazue Errealarekin?

Oso harreman ona dugu eta Errealaren ateak zabalik ditugu nahi dugunerako. Pena bat dut, nik utzi baino lehen, Erreal ez dela Argixaora entrenatzera etorriko.

Ez al duzue pentsatu Athleticekin joatea?

Ez, ez. Guk dakigunez, Athleticek, bere babesean dauden taldeei eskaintzen diena, Errealaren aldetik jasotzen dugunaren oso antzekoa da. Gainera, gure bazkideen zerbitzura gaude eta hauen gehiengoa, txuri-urdina da.

Krosean korrikalari gutxi baina onak



denboraldia, besteak beste Gipuzkoako txapelketan bigarren postua lortu zuen, Euskadikoan bosgarrena eta Espainiakora joateko aukera izan zuen. Dena den, gure bi herrietako korrikalarien maila ona azpimarratu beharra dago. Bestalde, urtean zehar eskola kirolean aritzen diren gazteentzat hainbat proba ezberdin egiten dihardute atletismoan.

Kros denboraldia bukatu berri dugun honetan, azken urtea nolakoa izan den aztertzeko ordua iritsi zaigu. Emaitei dagokienean nahiko denboraldi ona izan dela esan behar dugu, hasiera batean espero zitekeena baina hobea. Hala ere, denboraldiak alde onaz gain txarra ere izan du, gero eta jende gutxiagok du atletismoan aritzeko gogoia. Aipatzekoa da Eneko Zabaletak egindako

CHIARA

Etixerako lentzeria
Oparitarako gaiak

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
20700 URRETXU

ARKUPE TABERNA

Euskadi Enparantza, 5
☎ 72 43 19 ZUMARRAGA

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE

Electricistas, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta, 4 ☎ 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 72 42 66
☎ Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU



HAR-GOR

Artisautza - Jazkiak - Opariak

Nekolalde, 1
☎ 72 56 58


20700 URRETXU
(Gipuzkoa)

URki

UDABERRI HONE-
TAN DISEINUZKO
PAPERTEGIAN
NOBEDADEAK.

S. Esnaola, 3
☎ 72 42 98
ZUMARRAGA





Joxe Mari Gabiria
ETBko kazetaria

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Misiolaria, txinitoak bataiatzera joateko.

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Hotza, oso hotza eta ahal bada izotz kokkor pare batekin.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Ni lanerako jaio nintzen eta lana eginez disfrutatzen dut.

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

67ko udaberri euritsu hartan maisuak kaskarrekoa emateko erabili zuen makila. Berari bueltan emateko, noski.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Soldadu ezezaguna. Inork ezagutzen al du?

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Disfrutatzeke, jakina! Kristalak garbitu, kolada egin, aspiradora pasatu...

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

.Aizu, 27 zentimetrokoa ez dago batere gaizki ezta? Atal hori behintzat ez nuke ezergatik aldatuko.

✓Nora begiratzen diozu lehenik neska bati?

Bihotzera...eta agerian ez badago, bihotz ingurura.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Eiffel dorrea. Antzeko zerbait egiten saiatu ginen, baina ez zitzaigun batere ondo irten.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Gure etxeko komun txikia.

✓Zumarragan ezik non biziko zinateke gustura?

Urretxun.

✓Zein da duzun ohiturarik txarrena?

Oso "haizetsua" naiz eta gogoa datorkidanean ez dut inorenganako errukirik izaten, ezta aszensorean ere.

✓Bete gabeko amets bat?

Misiolari izatea.

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Entzutea gustatzen zait, kantatzea ere bai, dantzatzea ez hainbeste, baina jotzea... izugarri.

✓Kantu bat.

"Je t'aime, mais non plus". Nik entzundako lehenengo kantu pornoa horixe izan zen.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Puntualitatea gauza ederra da.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Goizero, dutxatu ondoren, kantzontzilo eta galtzerdi garbirik ez falta izatea.

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Oraintxe bertan Winston bat emango lidakeen harexengatik. (Hilabete t'erdia daramat erre gabe eta tarteka asko sufritzen dut.

✓Gaua ala eguna?

Biak. Batak bestea gabe ez luke ezer balioko.

✓Lo egiteko zer?

Printzipalena, logureak egotea.

✓Gustuko janari bat?

Mariskodun paella. Bakailua ere ez da txarra.

✓Ura, ala...

Egarria kentzeko, ura...aho sapaia gozatzeko, Errioxako ardo beltza.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Goizero gimnasia pixka bat egingo dut.

Urdaneta, 7 behea
☎ 72 37 09
20700 ZUMARRAGA



Plazaola, 1
☎ 73 16 42
20230 LEGAZPI

INGELES●FRANTSESA●ALEMANA●EUSKERA



-n hizkuntza guztiak ikasi ahal izango dituzu munduan zehar arazorik gabe ibili ahal izateko

PUBLIZTATEA

☎ 72 57 75



● Zorionak Garikoitz!! Zure guraso eta familiaren partetik. Egun zoriontsua igaro dezazula.



● Zorionak Martintxo!!! Kontuz ibili tarta gehiegi jan gabe eta gorde piska bat niretzat.



● Egun polit bat pasa dezazula zure urtebetetzean. Zorionak Vitoriano!!!



● Belarritik ezingo dizut tira egin baina Otamotzen bidez zoriondu nahi zaitut. Zorionak Aitor!!!!



● Zorionak Kakun!!! Zure urtebetetzea dela eta oso ondo pasa dezazula eta kontuz bermutarekin.



● Ez pentsa zutaz ahaztuko ginenik, oso ondo igaro zure eguna eta zorionak Alberto!!!



● Apirilaren 25ean izango da zure urtebetetzea eta ez dugu nahi zu zoriondu gabe gelditu. Zorionak Eukene!!!



● Espero dut kafetxo bat hartzeko denbora izango dugula. Zorionak Maria Jesus!!!




● Enarak zeruan abesten ari dira zoriondu nahian zure urtebetetzea. Zorionak Nerea!!!



● Hamahiru urte bete behardituen neska panpoxa hau zoriondu nahi dugu Zorionak Sheila!!!



● Zorionak Jone!!! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Irati, aitatxo eta amatxoren partez.



● Zorionak Aitor guraso eta anaien partetik. Ea egun zoriontsu bat igarotzen dugun.



● Askok maite dugun gure "sorgintxo"ari urte askotarako etxekoan partez. Zorionak Miren!!!

OHARRA

Agerre Aundiri laguntzen 250.000 pta.ko txekorren zozketan, zenbaki saritua: **0126**.

Apirilaren 14a baino lehen agertzen ez bada, beste honi egokituko zaio: **1201**.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599

Euskal Herria euskaldun gisa bizi dezazun.
Eros eta irakur ezazu egunero
Euskaldunon Egunkaria.



HERRI BATASUNA

